

Interes orokorreko xedapenak, **2017ko otsailaren 20tik 25era** bitarteko aldizkarietan (BOE, EHAA, ALHAO, BAO, GAO eta EBAO) argitaratuak.

I.- SEKTOREKO HITZARMEN KOLEKTIBOAK:

2017/02/21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

- **AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA. Eusko Jaurlaritza. Lana eta justizia.-** Esku-hartze Sozialari buruzko Gipuzkoako II. hitzarmena. Lana, Enplegua eta Gizarte Politiken Lurralde Ordezkararen EBAZPENA, zeinaren bitartez ezartzen den Esku-hartze Sozialari buruzko Gipuzkoako II. Hitzarmenaren erregistro, argitalpen eta gordailua, 2015-2018 urteetarako (20100025012011 kodea). **921. xedapena – 36 or.**

2017/02/23ko Estatuko Aldizkari Ofiziala

- **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA. Lan Hitzarmen kolektiboak.-** 2017ko otsailaren 10eko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen diren ikus-entzunezko ekoizleen eta horietan zerbitzuak eskaintzen dituzten antzezleen arteko harremanak arautzen dituen Estatuko hitzarmenaren 2017. urterako soldata taulak. **1866 xedapena – 3 or.**
- **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA. Lan Hitzarmen kolektiboak.-** 2017ko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den gestoria administratiboen Estatu mailako VII. Hitzarmen Kolektiboa. **1868 xedapena – 25 or.**
- **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA. Lan Hitzarmen kolektiboak.-** 2017ko otsailaren 13ko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen den Espainiako dantzalekuetako eta diskoteketako langileen Estatu mailako Hitzarmen kolektiboaren 2017. urterako berrikusketa. **1869 xedapena – 4 or.**
- **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA. Lan Hitzarmen kolektiboak.-** 2017ko otsailaren 13ko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erregistratzen eta argitaratzen diren argazkilaritzaren industriarako Estatuko Hitzarmen kolektiboko 2016. urteko behin betiko soldata taulak. **1870 xedapena – 2 or.**

II.-XEDAPEN ARAUEMAILEAK:

2017/02/21

- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOA. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.-** Otsailaren 6ko HFP/105/2017 Aginduko akatsen zuzenketa, zeinaren bitartez onartzen diren 121 erredua "Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga. Familia ugarien edo desgaitasunen bat duen pertsonaren kargua edukitzearen ondoriozko kenkariak. Aitorpena aurkeztea derrigorrezkoa ez duten zergadunengatik kenkarirako eskubidea lagatzearen jakinarazpena" eta 122 erredua "Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga. Familia ugariei, desgaitasunen bat duen pertsonaren kargua dutenei edo bi seme-alaba dituen legez banandutakoari edo ezkontza bidezko loturarik ez duenari dagozkion kenkariak. Aitorpena derrigorrez aurkezteko betebeharra ez duten zergadunengatik kenkarirako eskubidearen erregulazioa", hura aurkezteko lekua, modua eta epea ezartzen den, eta beste zerga araudi bat aldatzen den. **1748 xedapena – 1 or.**

2017/02/22

- **ENERGIA, TURISMO ETA AGENDA DIGITALAREN MINISTERIOA. Energia elektrikoa.-** ETU/130/2017 Agindua, otsailaren 17koa, zeinaren arabera eguneratzen diren energia elektrikoa energia iturri berriztagarrietatik, kogeneraziotik eta hondakinetatik abiatuta sortzeko instalazio jakin batzuei aplikatu dakizkiekeen instalazio tipoen ordainsari parametroak, 2017ko urtarrilaren 1ean hasten den erregulazio erdi-aldiari aplikatzeko. **1793 xedapena – 846 or.**

2017/02/24

- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. Merkatu antolatuetan negoziatutako balioak.-** HFP/145/2017 Agindua, otsailaren 20koa, zeinaren bitartez onartzen den merkatu antolatuetako balio negoziatuek 2016ko laugarren hiru hilabeteak dagokion batez besteko negoziatutako balioarekin duten harremana, 2016. urteko Ondarearen gaineko Zergaren aitorpenari eta balioei, aseguruiei eta errentei buruzko urteko aitorpen informatiboari dagokionez. **1929 xedapena – 12 or.**

2017/02/25

- **PRESIDENTETZAREN ETA LURRALDE ADMINISTRAZIOEN MINISTERIOA. Takografoak.-** 125/2017 Errege Dekretua, otsailaren 24koa, zeinaren bitartez finkatzen diren takografoen zentro teknikoek bete behar dituzten baldintza teknikoak eta jardunbide arauak. **1935 xedapena – 43 or.**

2017/02/20

- **ARABAKO BATZAR NAGUSIAK. Foru Arauak.-** 1/2017 Foru Araua, otsailaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunarena, herritarren parte-hartzearena eta gobernu onarena. **588 xedapena – 35 or.**

2017/02/22

- **ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. Foru Gobernuaren kontseiluaren foru dekretuak.-** 3 /2017 Foru Dekretua, otsailaren 14ko Diputatuen Kontseiluarena, zeinaren bitartez aldatzen den Pertsona Fisikoen

Errentaren gaineko Zergaren Araudia eta Sozietateen gaineko Zergarena. 618 xedapena – 3 or.

- **FORU AGINDUA (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).**- 76/2017 Foru Agindua, Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Diputatuarena, otsailaren 14koa, zeinaren bitartez onartzen den 117 eredua, errentak edo ondare irabaziak, inbertsio kolektiboko erakundeen kapitalaren edo ondarearen adierazgarri diren akzioak eta partizipazioak eskualdatzearen edo ordaintzearen ondorioz eta harpidetza eskubideak eskualdatzearen ondorioz lortuak direla-eta, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren atxikipenen eta konturako diru-sarreraren eta konturako ordainketen autolikidazioari buruzkoa. 635 xedapena - 6 or.

BAO (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala): [Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren linka](#)

GAO (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala): [Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren linka](#)

EBAO (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): [Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialaren linka](#)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tel.: 94 425 25 15 Faxa: 94 423.22.95

e-maila: informacion.juridica@mutualia.es

.....

GIZARTE SEGURANTZAREKIN ELKARLANEAN DIHARDUEN MUTUALITATEA, 2. ZK.

HENAO 26 - 48009 BILBAO